

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

▮

ITZULPENA¹

Araua: 1986/2006/EE ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 20koa, Estatu kideetako zerbitzu eskudunek, ibilgailuen matrikulazio-ziurtagiriak egiteko, bigarren belaunaldiko Schengen informazio-sistemara (SIS II) duten sarbideari buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*Reglamento 1986/2006 (CE) del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 diciembre de 2006, relativo al acceso al Sistema de Información de Schengen de segunda generación (SIS II) por los servicios de los Estados miembros competentes para la expedición de los certificados de matriculación de vehículos*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 381/1 de 28/12/2006)

(Egintza hauek argitaratu egin behar dira, aplikagarriak izan daitezzen)

1986/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 20koa,

Estatu kideetako zerbitzu eskudunek, ibilgailuen matrikulazio-ziurtagiriak egiteko, bigarren belaunaldiko Schengen informazio-sistemara (SIS II) duten sarbideari buruzkoa,

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNAREN KONTSEILUAK

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuak, eta, bereziki, haren 71. artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Kontsulta egin diote alde aurretik Eskualdeetako Komiteari,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki ⁽²⁾,

Honako hau kontuan hartuta:

(1) Batzordearen 1999/37/EE Zuzentarauak, 1999ko apirilaren 29koak, ibilgailuen matrikulazio-agiriei buruzkoak ⁽³⁾, xedatzen du estatu kideek elkarri lagunduko diotela aipatutako zuzentzari hori aplikatzen, eta informazioa trukatu ahal izango dutela elkarren artean ibilgailu bat matrikulatu baino lehen, dela bi Estatu kidek edo hainbatek, ibilgailu horrek lehendik matrikulatuta dagoen estatu kidean duen legezko egoera zein den egiaztatzearen. Egoera hori egiaztatzeko, elkarren artean konektatutako baliabide elektronikoak erabili ahal izango dira.

(2) Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 1987/2006 (EE) erregelamendua, 2006ko abenduaren 20koa, eta Kontseiluaren 2006/000/JAI Erabakia, ...koa, bigarren belaunaldiko Schengen informazio-sistemaren (SIS II) ezarpen, funtzionamendu eta erabilerari buruzkoa, ⁽⁴⁾ ⁽⁵⁾, SIS II sistema arautzeko lege-oinarria dira. Aipatutako sistema hori estatu kide guztientzako datu-basea da. Bertan, besteak beste, 50 zentimetro kubikoko zilindrada baino gehiagoko motordun ibilgailuei buruzko informazioa jasotzen da, baita hutsik daudela 750 kilogramotik gorako

pisua duten atoei buruzko eta karabanei buruzko informazioa ere. Bestalde, ibilgailuen matrikulazio-ziurtagiriei buruzko datuak eta lapurtutako, ebatsitako, galdutako edo ezeztatutako ibilgailuen matrikula-plakak jasotzen dira.

(3) 1987/2006 (EE) Erregelamendua eta 2006/000/JAI Erabakiak ordeztu egin dituzte, hurrenez hurren, 1990eko ekainaren 19ko Hitzarmenaren 92. eta 119. arteko artikulua, 1985eko ekainaren 14ko Schengen Hitzarmena, Benelux Erkidego Ekonomikoko Estatuak, Alemaniako Errepublika Federalaren eta Frantziako Errepublikaren artekoak, estatu horien arteko mugetan kontrolak heinean-heinean kentzen joateri buruzkoak ⁽⁶⁾ (Schengen Hitzarmena), 102 bis artikulua izan ezik. Artikulu hori Estatu kideetan ibilgailuen matrikulazio-ziurtagiriak egiteko zerbitzu eta erakunde eskudunek Schengen informazio-sisteman duten sarbideari buruzkoa da.

(4) Gaur egun, Tratatu V. Tituluan oinarritutako hirugarren tresna bat hartu behar da, 1987/2006 (EE) Erregelamendua eta 2006/000/JAI Erabakia osatzeko, era horretan Estatu kideetan ibilgailuen matrikulazio-ziurtagiriak egiteko eskumen duten zerbitzuak SIS II sisteman sar daitezzen, eta era horretan Schengen Hitzarmeneko 102 bis artikulua ordeztzeko.

(5) 2006/000/JAI Erabakiak xedatutakoari jarraiki, SIS II sisteman objektuen deskribapenak jasoko dira, motordun ibilgailuenak ere bai horien artean, ibilgailu horietaz jabetzeko edo auzibide penaletan frogatzea gisa erabiltzeko.

(6) 2006/000/JAI Erabakiak xedatutakoaren arabera, SIS II sisteman jasoko diren deskribapenak mugen kontrolean eskumena duten agintariak, polizia eta aduanetako ikuskariek, agintari judizialek eta Europolek bakarrik ikusi ahal izango dituzte.

(7) Hori dela eta, Estatu kideetan matrikulazio-ziurtagiriak egiteko eskumena duten zerbitzu publikoak eta ez publikoak argi berezi dira, eta zerbitzu guztiek 50 zentimetro kubiko baino gehiagoko zilindrada duten motordun ibilgailuei, 750kg baino pisu hutsa baino handiagoa duten atoei eta karabanei buruzko datuak ikusi ahal izango dituzte SIS II sisteman, baita lapurtutako, ostutako,

¹ C 65 EO, 2006.3.17koa, 70. or. 27.

² Europako Parlamentuaren Irizpena 2006ko urriaren 25ekoa (Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko abenduaren 19koa.

³ L 138 EO, 1999.6.1ekoa, 57. or. Irizpidea. Haren azken aldaketak Batzordearen 2003/127/EE Irizpidea osatzen du (L 10 EO, 2004.1.16koa, 29. or)

⁴ L 381 EO, 2006.12.27koa, 4. or.

⁵ L 381 EO, 2006.12.27koa, 99. or. 99.

⁶ L 239 EO, 2006.9.22koa, 19. or. 19. Hitzarmena. Haren azken aldaketak 1160/2005 (EE) Erregelamendua osatzen du (L 191 EO 2005.7.22koa, 18. or)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

galdutako edo ezeztatutako ibilgailuen matrikula-plakei buruzkoak ere, hartara, ibilgailu baten matrikula bertan begiratzean, ibilgailua lapurtua, ostua edo galdutakoa den egiaztatu ahal izateko.

(8) Horretarako, zerbitzu horiei datu horiek ikusteko sarbidea eman behar zaie, eta datu horiek erabiltzeko baimena eman behar zaie, administrazio-helburua betetzeko; hau da, ibilgailuen matrikulazio-ziurtagiriak behar bezala egiteko.

(9) Ibilgailuen matrikulazio-ziurtagiriak egiteko zerbitzu eskudunak ez badira zerbitzu publikoak, datuak ikusteko baimena zeharkakoa izan beharko da; hau da, agintari publiko baten bidezkoa, 2006/000/JAI Erabakiak xedatutakoaren arabera, Estatu kideek segurtasunaren eta konfidentzialtasunaren esparruko arauak, aipatutako Erabakian aipatutakoak, betetzen dituztela bermatzen baita.

(10) 2006/000/JAI Erabakiak ezartzen ditu SIS II sisteman egindako kontsulta baten bidez objektu jakin baten deskribapena azaleratuz gero hartu beharko diren neurriak.

(11) Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 1995eko urriaren 24ko 95/46/EE Zuzentaraua, datu pertsonalen tratamenduan eta datu horien zirkulazio librearen eremuan pertsona fisikoen babesari buruzkoa (¹), Estatu kideetan ibilgailuei matrikulazio-ziurtagiriak emateko eskumena duten zerbitzuek datu pertsonalei eman beharreko trataeran aplikatzen da. 2006/000/JAI Erabakian jasotako xedapen zehatzek, erregistro-fitxategietako datu pertsonalen babesari buruzko segurtasun, konfidentzialtasun eta mantentzeari buruzkoek, osatu edo argitu egiten dute SIS II testuinguruko zerbitzuek datuei eman beharreko trataerari buruz Zuzentarau horretan xedatutakoa.

(12) Proposatutako ekintza da Estatu kideetan ibilgailuen matrikulazio-ziurtagiriak egiteko eskumena duten zerbitzuei SIS II sisteman sartzen uztea, 1999/37/EE Zuzentaruak ezarritako helburua bete ahal izateko. Estatu kideek bakarrik ezin dute helburu hori lortu, eta beraz, ekintzaren ondorio eta tamaina dela-eta, askoz ere hobeto lortu ahal izango da EBtik, SIS II sistema informazio-sistema EB osorako sistema baita. Era horretan, Tratutako 5. artikuluan xedatutako subsidiarioritasun-printzipioari jarraituz, Erkidegoak printzipio horren arabera neurriak hartu ahal izango ditu. Artikulu horretan xedatutako proportzionaltasun-printzipioari jarraituz, Erregelamendu hau ez doa helburu horiek lortzeko beharrezkoa denaz harago.

(13) Erregelamendu honek oinarritzko eskubideak errespetatzen ditu, eta Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunean xedatutako eskubideak errespetatzen ditu.

(14) Islandiari eta Norvegiari dagokienez, Erregelamendu honek Schengen altxorrari buruzko xedapenak garatzen ditu, eta Europar Batasunak, Europar Erkidegoak, Islandiako Errepublikak eta Norvegiako Erreinuak egindako Hitzarmenaren arabera da, hain zuzen ere Schengen altxorra exekutatu, aplikatu eta garatzeko orduan bi Estatu horiek duten parte-hartzea zehazten duenaren arabera (²). Xedapen horiek Kontseiluak 1999ko maiatzaren 17an hartutako 1999/437/EE Erabakiko G puntuko 1. artikuluan (³) jasotzen dira, aipatutako Erabakia garatzeko arau jakin batzuei buruzkoetan.

(15) Suitzaren dagokionez, Erregelamendu honek Schengen altxorrari buruzko xedapenak garatzen ditu, Europar Batasunak, Europar Erkidegoak eta Helvetiar Konfederazioak Schengen altxorraren esparruan gauzatu, aplikatu eta garatzeko izango duen parte-hartzeari buruz sinatutako Hitzarmenaren bidez. Xedapen horiek 1999/437/EE Erabakiko G puntuko 1. artikuluan aipatzen dira, eta Kontseiluak hartutako 2004/849/CE (⁴) eta 2004/860/CE (⁵) Erabakien 1. ataleko 4. artikuluetan xedatutakoarekin batera irakurri behar dira. Hain zuzen ere, artikulu horiek dira aipatutako Erabaki horretako xedapen batzuk sinatu eta behin-behinean onartzeko baldintzei buruzkoak.

(16) Erregelamendu hau Schengen altxorra betetzeko araua da, edo harekin lotuta dago 2003ko Atxikitze Aktako 3. artikuluko 2. atalean xedatutako zentzuan.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. Artikulua

1. 2006/000/JAI Erabakiko 1. ataleko 38, 40 eta 46. artikuluetan xedatutakoa gorabehera, Estatu kideetan ibilgailuen matrikulazio-ziurtagiriak egiteko eskumena duten zerbitzuek, hain zuzen ere 1999/37/EE Zuzentaruak zehazten dituenak, SIS II sisteman datuak ikusteko eskubidea izango dute, Erabaki horretako 38. artikuluko 2. ataleko a), b) eta f) idatz-zatietan xedatutakoari jarraiki. Helburu bakarra izango da matrikulatu nahi diren ibilgailuak lapurtu edo galdu egin diren egiaztatzea, edota prozedura penal batean froga gisa erabiltzeko bilatzen diren egiaztatzea. Hona hemen zein datu ikusi ahal izango dituzten:

² L 176 EO, 1999.7.10ekoa, 36 or. 36.

³ L 176 EO, 1999.7.10ekoa, 31 or. 31.

⁴ Kontseiluak Europar Batasunaren izenean 2004ko urriaren 25ean hartutako 2004/849/EE Erabakia, Europar Batasunak, Europar Erkidegoak eta Helvetiar Konfederazioak egindako Hitzarmenaren xedapen jakin batzuk sinatu eta behin-behinean aplikatzei buruzkoa, Estatu horiek Schengengo altxorra gauzatu, aplikatu eta garatzen duen parte-hartzeari buruzkoa (L 386 EO, 2004.12.15ekoa, 26. or).

⁵ Kontseiluak Europar Batasunaren izenean 2004ko urriaren 25ean hartutako 2004/860/EE Erabakia, Europar Batasunak, Europar Erkidegoak eta Helvetiar Konfederazioak egindako Hitzarmenaren xedapen jakin batzuk sinatu eta behin-behinean aplikatzei buruzkoa, Estatu horiek Schengengo altxorra gauzatu, aplikatu eta garatzen duen parte-hartzeari buruzkoa (L 370 EO, 2004.12.17ekoa, 78. or).

¹ L 281 EO, 1995.11.23koa, 31. or. 31. 1882/2003 (EE) Erregelamenduak aldatutako Zuzentaraua (L 284 EO, 2003.10.31koa 1. or) 1).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

a) 50 zentimetro kubiko baino zilindrada gehiagoko motordun ibilgailuei buruzko datuak;

b) 750 kg pisu hutsa baino gehiagoko atoei buruzko datuak eta karabanei buruzkoak;

c) lapurtutako, ebatsitako, galdutako edo ezeztatutako ibilgailuen matrikulazio-ziurtagiriei buruzko datuak.

2. atalean xedatutakoa eragotzi gabe, Estatu kide bakoitzeko Zuzenbideak arautuko du zerbitzu eskudunek datu horiek ikusteko duten eskubidea.

2. 1. atalean aipatutako zerbitzuak publikoak badira, SIS II sisteman gordetako datuak zuzenean ikusteko eskubidea izango dute.

3. 1. atalean aipatutako zerbitzuak publikoak ez badira, SIS II sisteman gordetako datuak 1. atalean aipatutako Erabakiko 40. artikuluan aipatutako erakundeen bitartez bakarrik ikusi ahal izango dira. Erakunde horrek bakarrik izango du datuak zuzenean ikusteko eta zerbitzu interesatuari igortzeko eskubidea. Dena delako Estatu kideak bermatu behar du agintaritzak datuak erabiltzeko jakinarazitako muga guztiak errespetatuko dituztela zerbitzuak eta bertako langileek.

4. Erabaki horretako 39. artikulua ez zaio aplikatuko artikulua honen arabera datuak ikusteko moduari. Baldin eta SIS II sistematik 1. atalean aipatutako zerbitzuek ateratako eta bidalitako informazio batek delitu bat egin dela pentsarazten ahal badu, delitu horiek Estatu bakoitzeko Zuzenbideak arautuko ditu.

2. Artikulua

Erregelamendu honek Schengengo Hitzarmeneko 102 bis artikulua ordezten du.

3. Artikulua

Erregelamendu hau Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeitau egunera sartuko da indarrean.

2006/000/JAI.R Erabakiko 2. ataleko 71 artikulua xedatutakoaren arabera zehaztutako egunetik aurrera aplikatuko da.

Erregelamendu honetako elementu guztiak derrigorrezkoak izango dira eta zuzenean aplikagarriak Estatu kide bakoitzean.

Bruselan egin, 2006ko abenduaren 20an.

Europako Parlamentuaren izenean

Presidentea

J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean

Presidentea

J. KORKEAOJA